

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrek 2026ko martxoaren 05ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERBURU, HERNANIKO BURUHANDI ETA ERRALDOIEN KONPARTSA ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrek 2024ko abenduaren 19an, Hernaniko Herburu, Buruhandi eta Erraldioen Konpartsarekin hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2025eko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31 artekoa, beste lau urtez luzagarria.

Hernaniko Udalak urtero 16.000 €-ko dirulaguntza emango dio Hernaniko Herburu, Buruhandi eta Erraldioen Konpartsari, 2026ko aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasotakoa: Partida: 1910.481.05.334.00/2026 (7544). Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran.

2025eko dirulaguntzaren zuriketa garaiz eta dagokion epean aurkeztu ditu memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen froga-agiriak.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak martxoaren 05eko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela Gobernu batzarrek **AHO BATEZ erabaki du**

- 2025eko dirulaguntza izendunaren zuriketa **onartzea**

- 2026rako **16.000 €-ko dirulaguntza izenduna** onartzea eta lau zatitan ordainketa egitea: otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran 1910.481.04.334.00/2026 partidatik.

1. ordainketa 4.000 € egitea

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa da, hau da, 2025eko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31 artekoa, beste lau urtez luzagarria.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoexea
Behin-behineko udal Idazkaria
Hernanin 2026ko martxoaren 10ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna,
QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiaztatu dezakezu.

